



Mutriku Udala

IBILGAILUEN APARKATZE ORDENANTZA ARAUTZAILEA

Mutriku Udalak, bere eskumenen barruan, herritarren beharrak betetzen lagungarri izan daitezkeen era guztietako ekintzak bultzatu eta nahi hainbat herri-zerbitzu eskain ditzake.

Mutriku eremu, bide, kale eta azpiegitura publikoak orokorrean eta udalerraren errealitate propioa kontuan harturik, beharrezkoa da ibilgailuak aparkatzeko aparkalekuen eta eremuen funtzionamendu eta antolamendu espezifikoa arautzea.

Horregatik, Mutriku Udalari dagokio aparkatzeko eta trafikoari buruzko eskari orokorrei erantzutea, argia baita trafikoaren eragina ingurumen kalitatean eta garraio publikoaren eta orokorrean trafikoaren arintasunean. Helburua da aparkatzea normalizatzea beharren, eskura dauden eremuen eta ondorio ekonomikoaren hiritar guztien arteko banaketa irizpide justu batzuekin.

Ildo beretik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g artikulua udalei esleitzen die, besteak beste, trafikoaren, ibilgailuen aparkalekuaren eta mugikortasunaren eskumena, bai eta hiri-garraio kolektiboarena ere.

Gainera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 139. artikulua honako hau xedatzen du gai jakin batzuetako arau-hausteen eta zehapenen tipifikazioari dagokionez: *"Toki-intereseko bizikidetzaharremanak eta beren zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura, instalazio eta espazio publikoen erabilera behar bezala antolatzeko, toki-erakundeek, araudi sektorial espezifikorik ezean, arau-*

ORDENANZA REGULADORA DE APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS

El Ayuntamiento de Mutriku, en el ámbito de sus competencias, puede promover toda clase de actividades y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades de los vecinos.

Considerando las peculiaridades de los espacios, vías, calles e infraestructuras públicas en general de Mutriku, y la propia realidad del municipio hace necesario regular específicamente el funcionamiento y organización de los aparcamientos y espacios para estacionar vehículos.

Es por ello que corresponde al Ayuntamiento de Mutriku atender a la demanda de estacionamiento y tráfico en general, siendo clara la influencia del tráfico en la calidad ambiental y su repercusión en la fluidez de los transportes públicos y del tráfico en general. Se trata de normalizar el aparcamiento obedeciendo a criterios de justa distribución de necesidades, de uso de los espacios disponibles y de repercusiones económicas entre todos los ciudadanos.

En este sentido el artículo 25.2.g de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, atribuye a los municipios, entre otras, la competencia en Tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad, así como en transporte colectivo urbano.

Además, el artículo 139 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en relación a la tipificación de infracciones y sanciones en determinadas materias dispone que: *"Para la adecuada ordenación de las relaciones de convivencia de interés local y del uso de sus servicios, equipamientos, infraestructuras, instalaciones y espacios públicos, los entes locales podrán, en defecto de normativa sectorial específica,*

hausteen motak ezarri ahal izango dituzte, eta dagozkien ordenantzetan jasotako betebeharrak, debekuak edo mugak ez betetzeagatik zehapenak ezarri ahal izango dituzte, hurrengo artikuluetan ezarritako irizpideekin bat etorriz”.

Aurrekoarekin batera, ez da ahaztu behar Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikulua toki-erakundeei erregelamenduak egiteko ematen dien eskumena.

Aipaturiko xedapenetan oinarrituz ondoko araua aldarrikatzen da:

IBILGAILUEN APARKATZE ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Ordenantza honen xedea Mutriko udalerriko bide publikoen zirkulazioarekin eta erabilerarekin lotutako zenbait alderdi arautzea da, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko eta aparkalekuen txandakatzea eta erabilera egokia bermatzeko.

Xede hori garatzeko Ordenantza honetan Araututako Aparkatzearen Udal Zerbitzu Publikoa (TAO) arautzen da, udalerriko bideak eta aparkalekuak hainbat zonaren, sektoreen eta eremuren bidez antolatuz eta izaera eta eraentza espezifikorekin.

Udalak araututako aparkatze-sistema Udalaren Herri Zerbitzutzat joko da.

establecer los tipos de las infracciones e imponer sanciones por el incumplimiento de deberes, prohibiciones o limitaciones contenidos en las correspondientes ordenanzas, de acuerdo con los criterios establecidos en los artículos siguientes”.

Junto a lo anterior no se debe olvidar la atribución de la competencia para elaboración de reglamentos que atribuye a las entidades locales el artículo 128, de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Al amparo de las disposiciones citadas se promulga la siguiente norma:

ORDENANZA REGULADORA DE APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1

El objeto de la presente Ordenanza es regular determinados aspectos relacionados con la circulación y uso de las vías públicas del municipio de Mutriku con la finalidad de aumentar la seguridad de las personas usuarias, mejorar la necesaria fluidez del tráfico rodado y garantizar la rotación y el buen uso de los aparcamientos.

En desarrollo de dicho objeto en la presente Ordenanza se regula el Servicio Público Municipal de Estacionamiento Regulado (OTA), organizando las vías y aparcamientos del municipio mediante diferentes zonas, sectores y ámbitos y con carácter y regulación específica.

El sistema municipal de estacionamiento regulado tendrá la consideración de Servicio Público Local.



Mutrikuko Udala

2. Artikulua

Aparkatzeko zona motak ondokoak dira:

- a) Araututako aparkatze orokorra: zona urdina.
- b) Txandakatze handiko aparkatzea: zona gorria.
- c) Egonaldi luzeko aparkatzea: zona berdea.
- d) Egoiliarrentzako aparkatzea: zona zuria.
- e) Autokarabanentzat erreserbatutako plazak.

3. artikulua

Beharrezkoa denean Alkateak araututako zonak eta guneak aldatu ahal izango ditu.

4. artikulua

Aparkatzeko zerbitzua arautzeko ezarritako eraentza zerbitzuarentzat ezarritako ordutegian aplikatuko da.

Zerbitzuaren funtzionamendu ordutegitik kanpo, bide publikoko zona eta gune guztiek araudi orokorra izango dute.

5. artikulua

Zamalanetarako zonak horretarako erabiliko dira baimendutako ordutegian eta berezkoak dituzten baldintzetan eta txartelik gabe aparkatu ahal izango da. Zamalanetarako ordutegitik kanpo, gune horiek arau honetan aurreikusitakoaren menpe geratuko dira

Indarrean jarraituko dute erasandako zonako kale bakoitzean ezarrita dauden seinale mugatzaile bereziek: gelditzeko debekua, bus geltokia, taxiak, zamalanetarako zonak, motoentzako tokiak, e.a..

Artículo 2

Los tipos de zonas de estacionamiento son los siguientes:

- a) Estacionamiento regulado general: zona azul.
- b) Estacionamiento de alta rotación: zona roja.
- c) Estacionamiento de larga duración: zona verde.
- d) Estacionamiento para residentes: zona blanca.
- e) Plazas reservadas para autocaravanas.

Artículo 3

En caso de necesidad la Alcaldía podrá acordar las modificaciones de las zonas y espacios regulados.

Artículo 4

Lo determinado para la regulación del servicio de estacionamiento será de aplicación en el horario que se establezca para ello.

Fuera del horario de funcionamiento del servicio todas las zonas y espacios de la vía pública pasarán a tener la regulación de carácter general.

Artículo 5

Las zonas reservadas a carga y descarga se destinarán a este fin durante el horario autorizado en las condiciones propias de su carácter y sin que sea preciso el uso de tarjeta o ticket de aparcamiento. Fuera del horario de carga y descarga, las zonas quedarán afectadas por lo previsto en esta norma.

Sigue en vigor la señalización limitativa específica que está situada en el área afectada: prohibición de detenerse, zona de carga y descarga, reservas de motos, etc....

6. artikulua

Aparkatze arautuaren zerbitzua udaldi garaian aplikatuko da, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean, biak barne.

7. artikulua

Aparkatze txartela edo dagokion baimena erabiltzetik salbuetsita daude ondorengo ibilgailuen erabiltzaileak:

1. Gidaria barruan duten taxiak.
2. Ezinduentzako Europako Aparkatzeko Txartela duten ibilgailuak.
3. Zamalanetan ari diren ibilgailuak, horretarako bereziki jarritako guneeetan.
4. Erreserba berezietan aparkatzeko baimena duten eta behar bezala identifikatuta dauden ibilgailuak.
5. Egoiliar izaera behar den moduan adierazitako ibilgailuak.
6. Profesionalen ibilgailuak (gremioak) beraien jarduera burutzen ari direnean.

II. APARKATZE ARAUAK

1. ERAENTZA OROKORRA

8. artikulua

Aparkatzea arautzearen bidez, udalerriko bide eta gune publikoetan zona desberdinak zehaztu eta gaitzen dira zonaren edo eremuaren arabera betebeharrak eta eskubide espezifikoak dituzten ibilgailuak aparkatzeko, hala badagokio, beharrezkoa izanik gaikuntza-titulua lortzea eta dagokion tarifa ordaintzea.

Artículo 6

El servicio de estacionamiento regulado se aplicará en el periodo estival, desde el 1 de junio hasta el 30 de septiembre, ambos inclusive.

Artículo 7

Estarán exentos de utilizar tarjeta o ticket de aparcamiento o autorización para ello los usuarios de:

1. Taxis con el conductor presente.
2. Vehículos identificados mediante tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con discapacidad.
3. Vehículos realizando operaciones de carga y descarga en las zonas asignadas especialmente para ello.
4. Vehículos debidamente identificados con autorización para aparcamientos en Reservas Especiales asignados para ello.
5. Vehículos debidamente identificados como residentes.
6. Los vehículos de profesionales (gremios) en el uso de su actividad.

II. REGULACIÓN DE LOS ESTACIONAMIENTOS

1. RÉGIMEN GENERAL

Artículo 8

Mediante la regulación de los estacionamientos se determinan y se habilitan zonas distintas en las vías y espacios públicos municipales para aparcar vehículos con obligaciones y derechos específicos según la zona o sector, siendo necesario, en su caso, la obtención del título habilitante y el pago de la tarifa correspondiente.



Mutrikuko Udala

9. artikulua

Mutrikuko Udalarekin ordainketak egunean dituzten egoiliarrek doako sarbidea izango dute edozein zonatan, betiere horretarako lekua baldin badago.

Egoiliar izaera izango dute ibilgailuaren helbidea Mutrikuan dutenak eta aplikazio-ekitaldian Mutrikuko Udalean Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu dutenak.

Hala ere, beren ibilgailuaren ordeztu beste bat eskuratu duten zergadunek ere doako sarbidea izango dute, betiere Mutrikuko Udalean aurreko matrikularen txartela entregatzen badute. Txartel horren ordeztu beste bat emango da matrikula berriarekin.

10. artikulua

Araututako aparkaleku moduan behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoan aparkatzen bada ibilgailua, ordaindu egin beharko da, erabiltzaileak hala eskatzen ez bada ere.

Aparkatze arautuko gunean aparkatzeko, baimena eskuratu beharko da, horretarako ezarritako sistema erabilita eta dagokion tasa ordaindu ondoren. Baimen horrekin batera aparkatzeko txartel bat emango da, edo ez. Aparkatzeko baimenarekin batera aparkatzeko txartela ematen den kasuetan, ibilgailuaren aurreko kristalaren barnealdean ezarri beharko da txartela, kanpotik erraz irakurri ahal izateko moduan.

Tarifak ordenantza honen I. eranskinean zehazten dira eta, hala badagokio, dagokion ordenantza fiskalean zehaztu eta eguneratuko dira.

Artículo 9

Los residentes que estén al corriente de pagos con el Ayuntamiento de Mutriku tendrán acceso gratuito a cualquiera de las zonas, siempre y cuando haya espacio para ello.

Se considerará residente a aquellas personas que tengan domiciliado el vehículo en Mutriku y hayan abonado el Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica en el Ayuntamiento de Mutriku en el ejercicio de aplicación.

No obstante, aquellos contribuyentes que hubieran sustituido su vehículo por otro tendrán, asimismo, el acceso gratuito siempre y cuando entreguen en el Ayuntamiento de Mutriku la tarjeta con la matrícula antigua que será sustituida por una nueva tarjeta con la nueva matrícula.

Artículo 10

La obligación de pago se origina por el aparcamiento de un vehículo en los espacios o vías públicas que estén debidamente señalizadas como zonas de estacionamiento regulado, en cualquiera de las zonas o sectores, aunque no medie solicitud por el usuario.

La autorización de aparcamiento, para estacionar en el ámbito de estacionamiento regulado, deberá obtenerse mediante el sistema implantado a tal fin, previo pago de la tasa correspondiente, pudiendo conllevar emisión de título habilitante (ticket) o no; en los casos en que la autorización de aparcamiento conlleve la emisión de título habilitante, este deberá colocarse en la parte interior de la luna frontal del vehículo de manera que sea fácilmente legible desde el exterior.

Las tarifas se determinan en el anexo I de esta ordenanza y, en su caso, se determinarán y actualizarán en la correspondiente ordenanza fiscal.

11. artikulua

Araudi honen mende geratuko diren zonak dokumentu honi erantsitako planoetan jasotzen dira. Eremu horiek 3. artikuluan zehaztutako baldintzetan aldatu ahal izango dira.

Zona horiek dauden lekuan behar bezala seinaleztatuta egongo dira, bai bertikalki (ahal denean), bai horizontalki.

12. artikulua

Zona ezberdinetan autokarabanentzako plazak arautuko eta erreserbatuko dira.

13. artikulua

Udalak egoki deritzen baimenak eman ahal izateko eskubidea gordetzen du mugatutako aparkamendu zonetarako eta dagokien aldirako. Horretarako udal bulegoetan egindako bereizgarriak erabiliko dira, hala izanez gero, dagokion tarifa ordaindu eta gero.

14. artikulua

Ezintasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako plazak okupatuta badaude, ibilgailu horiek egoiliarrentzat erreserbatutako eremuan aparkatu ahal izango dira, aparkatzeko baimenik edo tiketik behar izan gabe

2. ARAUTUTAKO APARKATZE OROKORRA

15. artikulua

Araututako aparkatze orokorraren zonaren eraentzaren baitan azpizona arrunta eta berezia ezberdinduko dira:

Artículo 11

Las zonas que quedarán sometidas a esta regulación se recogen en los planos que se adjuntan al presente documento. Estas zonas podrán ser modificadas en las condiciones determinadas en el artículo 3.

Dichas zonas estarán adecuadamente señalizadas en el lugar que ocupan, tanto verticalmente (cuando sea posible) como horizontalmente.

Artículo 12

Se regularán y se reservarán plazas específicas para el estacionamiento de autocaravanas en las distintas zonas.

Artículo 13

El Ayuntamiento se reserva el derecho de otorgar las autorizaciones que estime oportunas para estacionar vehículos en la zona de estacionamiento limitado por el tiempo que considere oportuno, para lo cual, se extenderán distintivos, que les serán facilitados en las oficinas municipales, en su caso, previo pago de la correspondiente tarifa.

Artículo 14

En el caso de que las plazas reservadas para personas con discapacidad estén ocupadas estos vehículos podrán aparcar en zona reservada de residentes sin la necesidad de autorización o ticket de estacionamiento.

2. ESTACIONAMIENTO REGULADO GENERAL

Artículo 15

La regulación de la zona de estacionamiento regulado general se diferencia en subzona ordinaria y en subzona especial:



Mutrikuko Udala

A) Azpizona arruntaren baldintza espezifikokoak ondokoak dira:

1. Ezartzen den ordutegia honako hau izango da:
Astelehenetik igandera: 09:00etatik 19:00etara.
2. Gutxieneko tarifa 30 minutuko aparkatzeari dagokiona izango da.
3. Gehieneko aparkaldia 5 ordukoa izango da.

Denbora hori gainditu ondoren ezin izango da zona honetan aparkatuta jarraitu gutxienez bi ordu igaro bitartean.

B) Azpizona bereziaren baldintza espezifikokoak ondokoak dira:

1. Ezartzen den ordutegia honako hau izango da:
Astelehenetik igandera: 09:00etatik 19:00etara.
2. Lehen ordua doan izango da.
3. Gehieneko aparkaldia 3 ordukoa izango da.

Denbora hau gainditu ondoren ezin izango da zona honetan aparkatuta jarraitu gutxienez bi ordu igaro bitartean.

3. TXANDAKATZE HANDIKO ZONA

16. artikulua

Txandakatze handiko araututako aparkatze zonaren baldintza espezifikokoak ondokoak dira:

1. Ezartzen den ordutegia honako hau izango da:
 - Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 19:00etara.
 - Larunbatetan: 09:00etatik 14:00etara.

A) Las condiciones específicas de la subzona ordinaria son las siguientes:

1. El horario que se establece será el siguiente:
De lunes a domingo: de 09:00 h a 19:00 h.
2. La tarifa mínima será la correspondiente al estacionamiento de 30 minutos.
3. El tiempo máximo de estacionamiento será de 5 horas.

Una vez transcurrido este tiempo no podrán seguir estacionados en esta zona hasta que transcurran al menos dos horas.

B) Las condiciones específicas de la subzona especial son las siguientes:

1. El horario que se establece será el siguiente:
De lunes a domingo: de 09:00 h a 19:00 h.
2. La primera hora será gratuita.
3. El tiempo máximo de estacionamiento será de 3 horas.

Una vez transcurrido este tiempo no podrán seguir estacionados en esta zona hasta que transcurran al menos dos horas.

3. ZONA DE ALTA ROTACIÓN

Artículo 16

Las condiciones específicas de la zona de estacionamiento regulado de alta rotación son las siguientes:

1. El horario que se establece será el siguiente:
 - De lunes a viernes: de 09:00 h a 19:00 h.
 - Los sábados: de 09:00 h a 14:00 h.

2. Gutxieneko tarifa 30 minutuko aparkatzeari dagokiona izango da.
3. Gehieneko aparkaldia ordubetkoa izango da.

4. ZONA MISTOA

16. BIS artikulua

Aparkatze zona mistoan araututako aparkatze orokor arruntraren eta txandakatze handiko araututako aparkatze zonaren baldintza orokorrak aplikatuko dira ondoko ordutegi berezituarekin:

- a) Txandakatze handiko zona:
 - Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 19:00etara.
 - Larunbatetan: 09:00etatik 14:00etara.
- b) Araututako aparkatze orokorra:
 - Larunbatetan: 14:00etatik 19:00etara.
 - Igande eta jaiegunetan: 09:00etatik 19:00etara.

4. IRAUPEN LUZEKO ZONA

17. artikulua

Iraupen luzeko araututako aparkatze zonaren baldintza espezifikoak ondokoak dira:

1. Ezartzen den ordutegia honako hau izango da:
 - Ibilgailu arruntak: Astelehenetik igandera: 09:00etatik 19:00etara.
 - Autokarabanak: Astelehenetik igandera 24 orduz.
2. Egun osoko edo egun erdiko (5 h) tarifak aplikatuko dira bi ibilgailu moten kasuan.
3. Lehen ordua doan izango da.

2. La tarifa mínima será la correspondiente al estacionamiento de 30 minutos.
3. El tiempo máximo de estacionamiento será de una hora.

4. ZONA MIXTA

Artículo 16. BIS

En la zona mixta se aplicarán las condiciones generales de la zona de estacionamiento regulado general de subzona ordinaria y de la zona de estacionamiento de alta rotación con los horarios específicos siguientes:

- a) Zona de alta rotación:
 - De lunes a viernes: de 09:00 h a 19:00 h.
 - Los sábados: de 09:00 h a 14:00 h.
- b) Zona de estacionamiento regulado general:
 - Los sábados: de 14:00 h a 19:00 h.
 - Domingos y festivos: de 09:00 h a 19:00 h.

4. ZONA DE LARGA DURACIÓN

Artículo 17

Las condiciones específicas de la zona de estacionamiento regulado de larga duración son las siguientes:

1. El horario que se establece será el siguiente:
 - Vehículos ordinarios: De lunes a domingo: de 09:00 h a 19:00 h.
 - Autocaravanas: De lunes a domingo 24 horas.
2. Se aplicarán tarifas de todo el día o medio día (5 h) en ambos tipos de vehículos.
3. La primera hora será gratis.



Mutrikuko Udala

5. EGOILIARREN ZONA

18. artikulua

Zona honetan egoiliarak diren ibilgailuek edo arau honetan aurreikusitako kasuetan daudenek bakarrik aparkatu ahal izango dute.

6. AUTOKARABANENTZAKO ARAUDIA

Ordenantza honen 12. artikulua aplikazioz Mutrikuko Udalak autokarabanentzako plazak erreserbatuko ditu zona ezberdinetan. Plaza hauek ondoko eraentza propioa izango dute, kokaturik dauden zona zein den berdin diolarik:

1. Zerbitzuaren ordutegia 24 ordukoa izango da.
2. Aparkaldia gehienez 24 ordukoa izango da. Egonaldi hau igaro ondoren ezin izango da zona honetan jarraitu gutxienez beste 24 ordu igaro arte.
3. Autokarabanek beraiantzat erreserbatutako plazetan bakarrik aparkatu ahal izango dute.
4. Plaza hauek ezin izango dute ibilgailu arruntek aparkatu.

7. BAIMEN ETA ERRESERBA BEREZIAK

19. artikulua

Ordenantza honen 13. artikulua aplikazioz Mutrikuko Udalak baimen bereziak eman ditzake dagokien tarifa berezia ordainduz gero ondoko kasuetan:

5. ZONA DE RESIDENTES

Artículo 18

En esta zona únicamente podrán estacionar los vehículos que tengan la condición de residentes o los que se incluyan en los supuestos previstos en esta norma.

6. REGULACIÓN PARA AUTOCARAVANAS

En aplicación del artículo 12 de esta Ordenanza el Ayuntamiento de Mutriku reservará plazas para autocaravanas en las distintas zonas. Estas plazas tendrán la siguiente regulación propia independientemente de la zona en que estén ubicadas:

1. El horario del servicio será de 24 horas.
2. El tiempo máximo de estacionamiento será de 24 horas. Una vez transcurrido este tiempo no podrán seguir estacionadas en la misma zona hasta que transcurran al menos otras 24 horas.
3. Las autocaravanas solamente podrán estacionar en las plazas reservadas para ellas.
4. En estas plazas no podrán estacionar los vehículos ordinarios.

7. AUTORIZACIONES Y RESERVAS ESPECIALES

Artículo 19

En aplicación del artículo 13 de esta Ordenanza el Ayuntamiento de Mutriku otorgará autorizaciones especiales, previo pago de la tarifa especial establecida en los casos siguientes:

- a) Udalerrian etxebizitzaren jabe diren udatiarrak edo hauen senar-emazteak, izatezko bikoteak eta lehen graduko familiarakoak udalerrian etxebizitza baten jabe direnek edo alokairu kontratu bat daukatenek eta zergen nahiz tasen ordainketa egunean daukatenek, etxebizitza bakoitzagatik bere jabetzakoa den (edota ezkontidearena) bi ibilgailurentzako txartela eskuratzeko eskubidea izango dute.

Baita ere, kanpineko erabiltzaileak barnebilduko dira gutxienez hiru hilabeteko iraupena duen kontratua baldin badaukate.

- b) Zergen nahiz tasen ordainketa egunean duten eta indarrean dagoen urtean Mutriku Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu ez duen ibilgailua eskuratu duten udal biztanle erroldan inskribaturik dauden hiritarrei txartel bakarra onartuko zaie.
- c) Udal biztanle erroldan inskribaturik dauden hiritarrei, zergen nahiz tasen ordainketa egunean dutenek, eta jabetzako ibilgailurik Mutriku ez dutenak, baina beste udalerrri batean egoitza duen enpresa-ibilgailua edo leasing edo renting kontraturen bat dutenek, enpresa-ibilgailu honentzako baimen bakar bat onartuko zaie.
- d) Udal biztanle erroldan inskribaturik dauden hiritarrei, zergen nahiz tasen ordainketa egunean dutenek, eta Mutriku bere jabetzako ibilgailua dutenak, baina aldi berean beste udalerrri batean egoitza duen enpresa-ibilgailua edo leasing edo renting kontraturen bat dutenak, enpresa-

- a) Los veraneantes o sus cónyuges o parejas de hecho y familiares en primer grado de consanguinidad sean propietarios de una vivienda en el municipio o que tengan un contrato de arrendamiento, que estén al corriente de pago en impuestos y tasas; por cada vivienda tendrán autorización para dos vehículos de su propiedad (o del cónyuge).

También se incluirán los usuarios de camping que tengan un contrato con una duración mínima de 3 meses.

- b) A los ciudadanos inscritos en el padrón de habitantes municipal de Mutriku que estén al corriente de pago en impuestos y tasas, y que hayan adquirido un vehículo el año en curso, pero no hayan pagado el Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica en Mutriku, se les concederá una única autorización.
- c) A los ciudadanos inscritos en el padrón de habitantes municipal de Mutriku que estén al corriente de pagos en impuestos y tasas, que no tengan vehículo en propiedad con domicilio en Mutriku, pero tengan un vehículo de empresa o contrato de leasing o renting domiciliado en otro municipio, se les concederá una única autorización para el vehículo de empresa del residente.
- d) A los ciudadanos inscritos en el padrón de habitantes municipal de Mutriku que estén al corriente de pagos en impuestos y tasas, que tengan vehículo en propiedad con domicilio en Mutriku, pero tengan otro vehículo de empresa o contrato de leasing o renting domiciliado en otro municipio, se les concederá



Mutrikuko Udala

ibilgailu honentzako baimen bakar bat onartuko zaie.

Ibilgailu horiek debekatua izango dute hondartza inguruko zonetan aparkatzea.

- e) Udal biztanle erroldan inskribaturik ez dauden hiritarrak, baina Mutrikun lanean ari direnak.

Ibilgailu hauek debekatua izango dute hondartze inguruko zonetan aparkatzea.

Gainerakoan baimen eta erreserba hauei egoiliar erabiltzaileentzako xedatutakoa aplikatuko zaie.

III. ZEHAPEN ERAENTZA

20. artikulua

Trafikoko arau-haustetzat hartuko da ordenantza honen edozein artikulua urratzea, hala nola Alkateak ordenantza honi buruz erabakitako ebazpenak haustea, eta, ezarritako legezko prozeduraren bidez, zigorra jarriko da.

21. artikulua

Ondokoak arau-hausteak izango dira:

- Aparkatzeko eskatu eta ordaindu den denbora gainditua egotea (beharrezkoa izanez gero lortutako tiketean azaltzen den denbora gainditua egotea).
- Ordenantza honetan adierazitako txartelik gabe aparkatzea edo txartela ikusteko moduko lekuren batean ez jartzea.
- Baimen berezia lortzeko dagokion tarifa ez ordaintzea.
- Aparkatzeko gehieneko denbora bukatu ondoren zona berean

una única autorización para el vehículo de empresa del residente.

Estos vehículos tendrán prohibido estacionar en las zonas colindantes a las playas.

- e) Para ciudadanos no inscritos en el padrón de habitantes municipal de Mutriku que estén trabajando en el municipio.

Estos vehículos tendrán prohibido estacionar en las zonas colindantes a las playas.

En lo demás a estas autorizaciones y reservas especiales se aplicará lo dispuesto para los usuarios residentes.

III. RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 20.

La infracción de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía, tendrán la consideración de infracciones de las normas de ordenación de tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

Artículo 21.

Se consideran infracciones:

- Superar el tiempo máximo para el cual se ha abonado y solicitado autorización para aparcar (superar el tiempo máximo para el cual se ha obtenido ticket habilitante en el caso de ser necesario).
- Estacionar sin la tarjeta contemplada en la presente ordenanza, así como no colocar la tarjeta en sitio visible.
- No abonar la tarifa para la obtención de la autorización especial establecida.
- Volver a estacionar en la misma zona, una vez finalizado el

aparkatzea.

- e) Tikcet edo bereizgarria manipulatu, faltsutu, baliogabetu edo desegokia erabiltzea.
- f) Bereizgarrien titularrek helbide aldaketa edo ibilgailuaren eskualdatzea jakinarazteko obligazioa ez betetzea.
- g) Ordenantza honetan jasotako bereizgarriak behar den moduan ez erabiltzea.
- h) Bereizgarria emateko beharrezko den betebeharren bat ez betetzea eta Udalari horretarako jarritako epean ez jakinaraztea.
- i) Bereizgarria jaso zuen ibilgailuaren jabetza eskualdatu ondoren ere, haren bereizgarria erabiltzea.
- j) Ezinduentzako Europako Aparkaleku Txartela edo, bestela, mugikortasun urriko pertsonentzako bereizgarria begi-bistan ez jartzea.
- k) Egoiliarrentzat gordetako zonan aparkatzea horretako bereizgarria eduki gabe.
- l) Ordenantza honetan adierazitako beste edozein baldintza ez betetzea.

22. artikulua

Arau-haustek honakoekin bat etorritik zigortuko dira: 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena, V. tituluari; eta legezko gainerako xedapen osagarrietan eta udal ordenantzetan erabakitakoak.

21. artikuluko a), d), g), h) eta i) puntuetan tipifikatutako arau-haustek 90,00 €rekin zigortuko dira (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, Alkatetza Dekretu bidez eguneratuko da) eta 21.

período máximo de estacionamiento.

- e) Utilizar un ticket o distintivo manipulado, falseado, anulado, caducado o no idóneo.
- f) Incumplir los titulares de los dispositivos la obligación de comunicar el cambio de domicilio o transferencia del vehículo.
- g) No utilizar debidamente cualquiera de los distintivos contemplados en la presente Ordenanza.
- h) Dejar de cumplir alguno de los requisitos en virtud de los cuales se concedió el distintivo, sin comunicarlo al Ayuntamiento dentro del plazo establecido para ello.
- i) Utilizar el distintivo una vez transferida la propiedad del vehículo para el que se otorgó.
- j) No colocar en lugar visible la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con Discapacidad, o el distintivo de persona de movilidad reducida, en su caso.
- k) Estacionar en zona reservada a residentes sin disponer del distintivo de residentes.
- l) Incumplir cualquier otra condición señalada en la presente Ordenanza.

Artículo 22.

Las infracciones se sancionarán en virtud de lo establecido en el título V del Real Decreto Legislativo 6/2015, 30 de octubre, Texto Refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial, y demás disposiciones legales, complementarias y ordenanzas municipales.

Las infracciones tipificadas en el artículo 21.a), d), g), h) eta i) serán sancionadas con 90,00 € (cantidad que será revisada y actualizada mediante Decreto de Alcaldía, en su caso) y en el supuesto contemplado



Mutrikuko Udala

artikuluko b), e), f) eta j) puntuetan tipifikatutako arau-haustek 100,00 €rekin zigortuko dira (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, Alkatetza Dekretu bidez eguneratuko da) eta, dagokionean, bereizgarria baliogabetu eta 2 urteko epea pasatu arte ez zaio berririk egingo.

Horiek horrela izanda ere, ez da eragozpenik izango hauek eskatzeko: Ordenantzako tarifetan jarritako prezioak ordaintzea, baita premiamendu-bidea erabilita ere, bat etorritik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauarekin (martxoaren 8ko 2/2005), zeina lotuta dagoen 2/1990 Foru Araua, urtarrilaren 11koa, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoarekin. Sor daitezkeen bestelako tasak ere ordaintzea.

21. artikuluko a) puntuan tipifikatutako arau-haustea 40,00 €rekin kendu ahal izango da lehenengo 90 minutuetan eta 21. artikuluko b) puntuan tipifikatutako arau-haustea 45,00 €rekin kendu ahal izango da lehenengo 90 minutuetan.

23. artikulua

21 artikuluan tipifikatutako arau-haustek trafiko eta aparkamenduen zerbitzu publikoa antolatu eta hobetzeko oztopo larriak dira, beraz, oker okupatutako espazioa berreskuratzeko, udal-agintaritzak ibilgailu hori kenduko du eta horretarako prestatutako gordailura eramango du, ezar daitekeen zigor ekonomikoa kontuan hartu gabe.

21. artikuluan aurreikusitako kasuetan autoa kendu egingo da, egoilarrentzako araututako aparkatzeko zonan horretarako baimena ematen duen bereizgarririk gabe aparkatzen bada.

en el artículo 21. b), e), f) y j) serán sancionadas con 100,00 € (cantidad que será revisada y actualizada mediante Decreto de Alcaldía, en su caso) y, en su caso, con la anulación del distintivo y la denegación de otro nuevo por plazo de hasta 2 años.

Todo ello, sin perjuicio de exigir el pago de los correspondientes precios fijados en las tarifas de la Ordenanza incluso por la vía de apremio conforme establece la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, reguladora de Tasas y Precios Públicos, ni de la exigencia del pago de las tasas que pudieran originarse.

La infracción tipificada en el artículo 21.a) podrá ser anulada en los 90 minutos posteriores mediante el pago de 40,00 € y la infracción tipificada en el artículo 21.b) podrá ser anulada en los 90 minutos posteriores mediante el pago de 45,00 €.

Artículo 23.

Las infracciones tipificadas en el artículo 21, al constituir un grave obstáculo para la ordenación y mejora del tráfico y del servicio público de aparcamiento, podrán determinar por sí mismas que por parte de la autoridad municipal se proceda a recuperar la libre disposición del espacio público indebidamente ocupado, retirando dicho vehículo y transportándolo al lugar preparado a tal efecto para su depósito, con independencia de la sanción económica que se imponga.

La retirada del vehículo en los supuestos contemplados en el artículo 21, se llevará a cabo cuando un vehículo permanezca estacionado en lugares habilitados como de estacionamiento exclusivo de residentes sin colocar el distintivo que lo autoriza.

Alkateak –edo, hala badagokio, eskuorde-tze edo deskontzentrazio bidez jardungo duen organoak– baimena eman ahal izango die Agintaritzaren izenean trafikoa zaintzen duten agenteei, legez ezarritako kasuetan, kautelazko neurri hau har dezaten: ibilgailuak bidetik kentzea eta gordetzeko izendatutako lekura eramatea.

24. artikulua

Alkateak –edo, hala badagokio, eskuorde-tze edo deskontzentrazio bidez jardungo duen organoak– onar dezake trafikoaren arloan egiten diren arau–hauste ohikoen taula bat, bai eta zigor aplikagarriena ere. Dena den, taula horiek modulatu ahalko dira aldibereko zirkunstantzien arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA.

Arau honen aplikazio epea ekainaren 1etik irailaren 30era izango da. Hala eta guztiz ere, hasiera eguna atzeratu ahalko da Ordenantza hau indarrean sartzen den egunera.

BIGARRENA.

Ibilgailuen aparkatzea arautzen duen ordenantza hau Mutrikuko udalerriko hiri-izaerako bide publikoetako erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzarekin eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuarekin bat etorritz onartu eta aplikatzen da.

Subsidiarioki 2010eko urtarrilaren 28an onarturiko araututako hiriko aparkamendu zerbitzurako (TAO) ordenantza aplikatuko da.

HIRUGARRENA.

Ordenantza honetan araututakoa Gobernazio Batzordeak kontrolatuko du

El Alcalde, o en su caso, el órgano que actúe por delegación o desconcentración, podrá autorizar a los Agentes de la Autoridad encargados de la vigilancia del tráfico, en los casos legalmente establecidos, a adoptar la medida cautelar de retirada de vehículos de la vía pública y su depósito en el lugar que se designe.

Artículo 24.

El Alcalde o, en su caso, el órgano que actúe por delegación o desconcentración, podrá aprobar un cuadro de infracciones más comunes en materia de tráfico, así como de sanciones aplicables, sin perjuicio de la modulación a que éstas puedan someterse en razón de las circunstancias concurrentes.

DISPOSICIONES ADICIONALES

PRIMERA.

El periodo de regulación de esta norma será del 1 de junio al 30 de septiembre. No obstante, la fecha de inicio podrá ser postergada a la entrada en vigor de esta Ordenanza.

SEGUNDA.

La presente ordenanza reguladora de aparcamientos de vehículos se aprueba y se aplica en concordancia con la ordenanza reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano del municipio de Mutriku y el Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

Subsidiariamente se aplicará la ordenanza del servicio municipal de estacionamiento regulado (O.T.A.) aprobado el 28 de enero de 2010.

TERCERA.

La aplicación de lo regulado en esta Ordenanza será controlada por la Comisión



Mutrikuko Udala

eta, bere kasuan, Alkateak ebatziko du.

LAUGARRENA.

Ordenantza fiskalek ibilgailuen aparkatzea arautzen duen ordenantza honi dagozkion tarifak jasoko dituzte. Ordenantza hau onartu ondoren, tarifak ordenantza fiskalen bidez eguneratu ahal izango dira hurrengo ekitaldietan.

BOSGARRENA.

Jabari publikokoak diren eta Mutrikuko Udala ez den administrazio publiko bati atxikita dauden zonetan dagokion eraentzak ondorioak izango ditu Mutrikuko Udalari administrazio publiko horren berariazko baimena edo ahalmena ematen denean bakarrik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honetan jasotako esakuneen aurka dauden edo kontraesanen dauden Ordenantza honen aurreko udal xedapen guztiak Indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65. eta 70. artikuluetan ezarritakoaren arabera jarriko da indarrean.

de Gobernación y, en su caso, será resuelto por la Alcaldía.

CUARTA.

Las ordenanzas fiscales incluirán las tarifas correspondientes a la presente Ordenanza reguladora de aparcamiento de vehículos. Una vez aprobada esta Ordenanza las tarifas podrán ser actualizadas mediante las ordenanzas fiscales en los ejercicios siguientes.

QUINTA.

En las zonas que sean de dominio público y adscritas a una administración pública que no sea el Ayuntamiento de Mutriku, la regulación de dicha zona, sólo tendrá efectos en tanto en cuanto el Ayuntamiento de Mutriku esté expresamente autorizado o facultado por dicha administración pública.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las disposiciones municipales anteriores a esta Ordenanza que se opongan o contradigan los preceptos contenidos en la presente Ordenanza.

DISPOSICIÓN FINAL

Esta Ordenanza entrará en vigor en los términos de los artículos 65 y 70 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

**IBILGAILUEN APARKATZE ORDENANTZA ARAUTZAILEA
ORDENANZA REGULADORA DE APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS**

GEHIGARRIA / ANEXO

TARIFAK / TARIFAS

Aparkatze modalitatea / Modalidad de aparcamiento	Iraupena /Duración	Prezioa / Precio
Araututako aparkatze orokorra azpizona arrunta / Estacionamiento regulado general subzona ordinaria	0-30 min	0,50 €
	60 min	1,00 €
	90 min	1,75 €
	120 min	2,50 €
	180 min	4,00 €
	240 min	5,50 €
	300 min	7,00 €
Araututako aparkatze orokorra azpizona berezia / Estacionamiento regulado general subzona especial	0-30 min	0,00 €
	60 min	0,00 €
	90 min	2,25 €
	120 min	3,50 €
	180 min	5,00 €
Txandakatze handiko zona/ Zona de alta rotación	0-30 min	0,75 €
	60 min	1,25 €
Iraupen luzeko zona / Zona de larga duración	Egun erdia (5 h)	4,00 €
	Egun osoa (10h)	7,00 €
Autokarabanak / Autocaravanas	Egun erdia (5 h)	6,00 €
	Egun osoa (24h)	10,00 €

Baimen eta erreserba bereziak / Autorizaciones y reservas especiales	Prezioa
a) Udatiarrak / Veraneantes	60,00 €
b) Ibilgailu berria eskuraketa / Adquisición vehículo nuevo	60,00 €
c) Ibilgailu bakarra enpresakoa / Vehículo único de empresa	60,00 €
d) Ibilgailu propioa eta enpresakoa / Vehículo propio y empresa	40,00 €
e) Langile kanpotarrak / Trabajadores foráneos	40,00 €

EGINBIDEA: Agiri honek 2022ko martxoaren 31n Mutrikuko Udalbatzaren osoko bilkurak onarturiko Ibilgailuen aparkatze ordenantza arautzaileari dagokiona jasotzen du.

Mutrikun, 2022ko maiatzaren 12an.

IDAIZKARI-KONTUHARTZAILEA. Ioseba Iribar Garrastazu